

## Aro digitaleko ikaskuntza integratzea misio, bisio eta estrategia globalaren zati da

Ikaskuntza eraginkorra sustatzen duten faktoreak, erakunde osoak ikaskuntzarako teknologia digitalak integratzea eta erabiltzea barne direla, argi eta garbi daude sartuta erakundearen misioari, bisioari eta estrategiari buruzko enuntziatuetan.

**Ikaskuntza digitalerako teknologien ahalmena argi markatuta dago**

Erakundearen plangintza estrategikoaren prozesuek eta dokumentazioak barne hartzen dituzten **bisioak eta misioak argi eta garbi artikulatzen dute ikaskuntza digitalerako teknologiek duten ahalmena** ikaskuntza-emaizta hedagarriagoetara bideratutako **hezkuntzako jardunbideak modernizatzeko**.

**Ikaskuntza digitalerako teknologien alde onak komunikatzen dira**

Erakundeak **prozesu egokiak** ditu ezarrita ikaskuntza digitalerako teknologiak **integratzearekin** lortzen diren **onurak** eta bisioa barnean eta kanpoan **komunikatzeko**.

**Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza**

Erakundearen plan estrategikoa ebidentzietan oinarritzen da eta teknologia digitalak hezkuntzan erabiltzeari buruzko etengabeko ikerketan bermatzen da. Barne hartzen ditu **aro digitaleko ikaskuntza** erakunde osoan iraunkortasunez **integratzearekin** zerikusia duten **jomuga eta helburu espezifikoak, horiekin lotutako [errendimendu-adierazleak](#) barne direla**.

**Hezkuntza irekia arlo publikoaren inplikazioaren alderdi bat da**

Erakundearen strategiaren inplikazio publikoak barne hartzen ditu **hezkuntza irekiko jardunbideekin hartutako konpromisoak**, hala nola, ikastaro irekiak, hitzaldi irekiak eta baliabide eta argitalpen digitaletara sarbide irekia.